

**2005EKO OTSAILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 7 DE FEBRERO DE 2005**

**Akta zenbakia:** 2/2005  
**Bilera data:** 2005-02-07  
**Bilera mota:** Ez ohiko osoko bilkura  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordua:** 16.30 – 17:00  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 2/2005  
**Fecha:** 07-02-2005  
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 16:30 – 17:00  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**  
**Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga

**Reunidos:**  
**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga

**Zinegotziak:**  
Maria Isabel Vaquero Montero  
Jose Luis Aramendi Goikoetxea  
Jose Maria Aldanondo Ugalde  
Maria Angeles Iriondo Mugica  
Gaspar Esnaola Agesta  
Hermenegildo Gonzalez Moran  
Consuelo Frutos González  
Jose Guirado Novo  
Juan Maria Tomasena Alzuri  
M. Asuncion Guerra Alonso

**Concejales:**  
Maria Isabel Vaquero Montero  
José Luis Aramendi Goikoetxea  
Jose Maria Aldanondo Ugalde  
Maria Angeles Iriondo Múgica  
Gaspar Esnaola Agesta  
Hermenegildo González Morán  
Consuelo Frutos González  
José Guirado Novo  
Juan Maria Tomasena Alzuri  
M<sup>a</sup> Asuncion Guerra Alonso

**Ezin etorria adierazi dute:**  
M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz

**Ausentes, que se han excusado:**  
M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua Ruiz

**Euren ezin etorria adierazi ez dutenak:**  
Jose Maria Mugica Heras

**Ausentes, que no se han excusado:**  
Jose Maria Mugica Heras

**Bitarteko idazkaria:**  
Beatriz Garate Cortabarría

**Secretaria interina:**  
Beatriz Garate Cortabarría

**Bitarteko kontuhartzailea:**  
Aitziber Zurutuza Arza


**Interventora interina:**  
Aitziber Zurutuza Arza

**Aztergaiak:**

**Orden del día:**

1.- Emakida bidezko zeharkako kudeaketa onartzea, kale garbiketa eta gunee berdeen zerbitzurako.

1.- Aprobación de la gestión indirecta, mediante concesión, como forma de la prestación del servicio de limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes.

**2005EKO OTSAILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 7 DE FEBRERO DE 2005****1.- Emakida bidezko zeharkako kudeaketa onartzea, kale garbiketa eta gunee berdeen zerbitzurako.**

Alkateak azaldu duenez, lehengo ostiralean PSE-EE taldeko zinegotzi M. Teresa Pagazaurtundua idatzitako eskaera bat jaso zuen, eta eskaera horretan gaurko udalbatzarra bertan behera uzteko eskatzen zuen, bera Bartzelonan dagoela eta; esan du hamahiru zinegotzi direla, eta horietatik gutxienez hamaikak arazo bera noiznahi izan dezakeela, eta, beraz, ez zaiola iruditzen udalbatzar bat bertan behera uzteko motiboa. Gero, bilkura hasi du esanez beraien proposamena kale garbiketa eta gunee berdeen zerbitzurako zeharkako kudeaketa dela; hori guztia jadanik azalduta dagoela esan du, eta inork ezer esateko ez baldin badauka zuzenean botazioa egingo dutela.


Orduan, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik eskatu du hitza, eta esan du zuzeneko kudeaketa zenbat kostako den langileak kontuan hartuta kalkulatu dela; bere ustez, astakeria bat da gunee berdeetarako sei pertsona izatea; izan ere, lan horietarako zenbateko lanaldia behar den aztertzen aritu da, eta uste du informazioa gaizki eman dietela, eta datu horiek transmititzeko orduan gaizki ulerturen bat egon dela. Esan du ez dela egia lehenengo urtean kale-garbitzeko makina, sasi-garbitzeko makina eta abar erosteko inbertsioetan sartu behar dutela, eta horregatik uste du okerreko azterketa egin dela. Alkateak erantzun dio berari berdin zaiola urte batean kalkulatu edo kalkulu hori bost urtetan zatitu; azkenean zenbat kostatuko zaien hartu behar dute kontuan; adierazi duenez, bi moduak ezberdinak dira, eta hemen planteatu dute inbertsioa lehenengo urtean egitea eta gainerako urteez ez arduratzea; lehenengo urtean egiten

**1.- Aprobación de la gestión indirecta, mediante concesión, como forma de la prestación del servicio de limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes.**

El alcalde ha explicado que el pasado viernes recibió un escrito de la concejala del grupo PSE-EE M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua, solicitando la suspensión del pleno de hoy, debido a que ella se encuentra en Barcelona; ha señalado que son trece concejales, y que por lo menos once de entre ellos pueden tener el mismo problema cualquier día, y que, por tanto, no le parece motivo suficiente como para suspender un pleno. A continuación, el alcalde ha abierto la sesión diciendo que su propuesta para la prestación del servicio de limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes es favorable a la gestión indirecta. Ha señalado que todo eso ya está explicado previamente y que si nadie tiene nada que decir pasarán directamente a la votación.

Entonces, ha solicitado la palabra el concejal de IU, Juan M<sup>a</sup> Tomasena Alzuri para decir que se hizo un cálculo sobre la gestión directa en función de datos sobre la plantilla; él considera que es una barbaridad asignar seis personas para el servicio de zonas verdes, que él ha estado valorando la realidad de la posible dedicación en estas labores y opina que la información se les ha ofrecido mal y que ha habido mal entendimiento a la hora de transmitir esos datos. Ha dicho que no es correcto que se metan en inversiones la compra de una barredora, la desbrozadora, etc. el primer año y que por ello opina que ha habido una consideración equivocada. El alcalde le ha respondido diciendo que a él le da lo mismo calcular por un año o dividir el cálculo en cinco años, que al final lo que cuenta es cuánto les va a costar; ha señalado que las dos formas de gestión son diferentes, y que lo que se plantea aquí es invertir el primer año y desentenderse de



*Urnietako Udala**Uguzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

## 2005EKO OTSAILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE FEBRERO DE 2005

bada inbertsioa, gainerako urteetan mantentze-lanen gastuak bakarrik izango dituzte, eta azkenean berdin ateratzen da.

Horren ostean, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta esan du beren jarrera azaldu zutela aurreko udalbatzarrean, baina nabardura bat erantsi nahi duela: alkateak esan duenez, ez zegoen ezer hitzartua, baina zerbait hitzartua bazegoen, honi buruzko botazioa egin eta ez baitzen onartu.

Ondoren, EAJ-EAko zinegotzi Jose Maria Aldanondo Ugaldek eskatu du hitza, EBko zinegotziari erantzuteko; batetik, esan du langileei buruz kontuan izan behar dituztela oporrak, gaixoaldiak eta abar, nahiz eta lau langilerekin nahikoa izan; orduan langile gehiago behar dela beti; bestetik, esan du zerbitzu hauek zuzenean ematen badira udaleko gastu arrunta ikaragarri igotzen dela, eta Udalak ze irteera dituen ikusi behar dutela; esan du batzuetan Udaleko bertako langileak behar direla, eta beste zenbait lan kanpora atera behar direla, eta hori bidezkoa dela; azken finean, hori hola egiten baldin bada, Udalarentzat askoz hobea delako egiten dute. Udalak, gastu arrunta gehitzen bazaio, ito egiten dira, eta hori ere kontuan izan behar dute.

Eztabaidatu ondoren, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 7 (6 EAJ-EA, 1 PP)  
Kontra: 4 (3 PSE-EE, 1 EB).  
Abstentzioak: 0

los siguientes; ha señalado que si invierten el primer año los siguientes sólo deberán asumir los gastos de mantenimiento, y al final sale lo mismo.

Después ha solicitado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para explicar que, ya que argumentaron su posición en el anterior Pleno, sólo quiere introducir un matiz, el Alcalde ha comentado que no se había acordado nada, pero que sí se acordó algo, ya que este punto se votó y no fue aprobado.

Seguidamente, ha tomado la palabra el concejal del PNV-EA Jose María Aldanondo Ugalde, para decirle al concejal de IU que, por una parte, respecto a los trabajadores, aunque con cuatro sea suficiente, deben tener en cuenta las vacaciones, bajas etc., de modo que siempre se necesita un mayor número de trabajadores; por otra parte, ha señalado que si estos servicios se prestan de forma directa el gasto corriente del ayuntamiento se incrementa muchísimo y que deben analizar las alternativas con las que cuenta el Ayuntamiento; ha señalado que para varios trabajos se necesita personal del Ayuntamiento, y que, sin embargo, otros trabajos hay que sacarlos fuera, y que eso es legítimo; y es que si se hace así es porque para el Ayuntamiento resulta mucho mejor, ya que si a un ayuntamiento se le incrementa el gasto corriente, se ahoga, y eso también deben de tenerlo en cuenta.

Tras el debate, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 7 (6 PNV-EA, 1 PP)  
En contra: 4 (3 PSE-EE, 1 IU)  
Abstenciones: 0



**2005EKO OTSAILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 7 DE FEBRERO DE 2005**

Ikusirik 2004ko azaroaren 17an eta 2004ko abenduaren 20an egindako Hirigintza, Obrak eta Landa Munduko informazio batzordeetan hitz egin eta informazioa eman zela.

Visto que en las comisiones informativas de Urbanismo, Obras y Mundo Rural celebradas el 17 de noviembre de 2004 y el 20 de diciembre de 2004 se debatió e informó sobre el tema.

Gaia bozkatu ondoren, korporazioaren gehiengo absolutua osatzen duten udalkideen aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Tras la votación, el pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación ha adoptado el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

Lehenengoa eta bakarra.- Kale garbiketa eta gune berdeen zerbitzurako, emakida bidezko zeharkako kudeaketa onartzea.

Primero y único.- Aprobar la gestión indirecta, mediante concesión, como forma de prestación del servicio de limpieza viaria y mantenimiento de zonas verdes.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko bostetan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría  
Bitarteko idazkaria,



Stua.: Florentino Ugalde Atxaga  
Alkate-lehendakaria,

